



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Bilboko Gobernu Batzordearen 2024ko irailaren 18ko Erabakiaren laburpena, Ekintza Humanitarioko eta Larrialdiko Laguntzako Programak babesteko dena. BDNS (Identif.): 786458.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/786458>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluekin bat etorrira, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi nahi izanez gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Bat. — Erakunde onuradunak

Bilbon egoitza nagusia edo ordezkari iraunkorra daukaten elkarteak izango dira, dokumentu bidez egiaztatua, gutxienez diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik. Euren helburuetan ekintza humanitarioko eta larrialdietako laguntza agertzea beharrezkoa da.

Bi. — Helburua

Nazioarteko Ekintza Humanitarioko eta Larrialdiko Laguntzako Programak.

Hiru. — Oinarri arautzaileak

Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 138 zenbaki, 2016ko uztailaren 20koa).

Lau. — Zenbatekoa

Deialdi honetarako zenbatekoa 115.000 euro da. 9 artikuluan zehaztutako balorazio-irizpideen arabera banatuko da. Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka izango da.

Bost. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko hamabost (15) egutegi-egun egongo dira, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Sei. — Beste datu batzuk

Eskaria eskabide-orria, sinatuta eta landuko den programaren edukia azaltzen duen dokumentu batekin aurkeztu behar da; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da.

Bilbon, 2024ko irailaren 19an. — Berdintasun, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Immigrazio Saileko zinegotzi ordezkaria. Kontxi Claver Zurro